Ekogunea
kutxa gizarte ekintza

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua

**KUTXA EKOGUNEAREN ETA URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ARTEKO HITZARMENA, BERRIKUNTZAREN ETA HEZKUNTZAREN ARLOETAN URAREN KUDEAKETARI LOTUTAKO JARDUKETA EZBERDINETAN ELKARLANEAN ARITZEKO**

Vitoria-Gasteizen, 2012ko irailaren 27an

**BILDU DIRA**

Batetik, Carlos Ruiz González jn., ARTEAGA FUNDAZIOAREN (aurrerantzean, KUTXA EKOGUNEA) izenean eta ordez, G-20053492 IFK zenbakiarekin, eta helbidea Donostiako Oriamendi pasealekuko 170. zenbakian - 20009 PK- izanda, Euskadiko Fundazioen Erregistroan F-11 zenbakiarekin izena emanda duena.

Eta bestetik, Iñaki Urrizalki Oroz jn., URAREN EUSKAL AGENTZIAREN izenean eta ordez, Q0100554-E IFK zenbakiarekin, eta helbidea Vitoria-Gasteizko Orio kaleko 1-3 zenbakietan - 01010- duena.

Lankidetza-hitzarmen hau gauzatzeko nahikoa eskumen eta ahalmen aitortu dizkiote elkarri alde biek.

**AZALDU DUTE**

**LEHENENGOA**.- KUTXA EKOGUNEA, KUTXAren Gizarte Ekintzak iraunkortasunaren eta ingurumenarekiko errespetuaren inguruko

**CONVENIO ENTRE KUTXA EKOGUNEA Y LA AGENCIA VASCA DEL AGUA, PARA LA COLABORACIÓN EN DIFERENTES ACTUACIONES RELACIONADAS CON LA GESTIÓN DEL AGUA EN LOS ÁMBITOS DE INNOVACIÓN Y EDUCACIÓN**

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de septiembre de 2012

**R E U N I D O S**

De una parte, D. Carlos Ruiz González, en nombre y representación de FUNDACIÓN ARTEAGA (en adelante KUTXA EKOGUNEA), con CIF G-20053492 , domiciliada en Donostia-San Sebastián, Paseo de Oriamendi 170, CP 20009, e inscrita en el Registro de Fundaciones del País Vasco bajo el número F-11.

Y de otra, D. Iñaki Urrizalki Oroz, en nombre y representación de LA AGENCIA VASCA DEL AGUA, con CIF Q0100554-E, domiciliada en Vitoria-Gasteiz, Calle Orio, 1-3, CP 01010.

Ambas partes se reconocen competencia y capacidad bastante para la formalización del presente convenio de colaboración y a tal fin

**E X P O N E N**

**PRIMERO**.- Que KUTXA EKOGUNEA es la iniciativa a través de la que la Obra Social de KUTXA desarrolla su proyecto en el campo de la

[redacted]

sentsibilizazioaren eta dinamizazioaren arloko bere proiektua garatzeko baliatzen duen ekimena da, eta hiritarrak teoriatik ekintzara pasatu ahal izateko tresna da. KUTXA EKOGUNEAREN jarduketa estrategikoko eremuetako bat da uraren kudeaketa iraunkorraren inguruko berrikuntza Ekogunea parkean uraren kultura berria sustatuko duten ekintzen garapena.

**BIGARRENA**.- URAREN EUSKAL AGENTZIAK, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikita egonik, honako egiteko hau du: Euskadin uraren politika gauzatzea.

**HIRUGARRENA.-** KUTXA EKOGUNEAK, oro har, hiru erronka nagusi ditu uraren inguruan:

- Ekogunea parkean uraren hornidura eta saneamenduaren arloan berrikuntza teknologikoko sistemak ezartzea.
- Ingurumenaren gaineko prestakuntza- eta hezkuntza-programak, zein uraren kudeaketa iraunkorraren inguruko aholkularitza-zerbitzuak garatzea.
- Toki-administrazioekin zein beste eragile batzuekin elkarlanean, uraren kultura berria sustatzeko kanpainak eta proiektuak sustatzea.

[redacted]

**LAUGARRENA.-** URAREN EUSKAL AGENTZIAK, aldi berean, ondorengo erronka eta helburua nagusiak ditu, guztiak ere Sailak ezarritako ingurumen-helburuei lotuta:

sensibilización y dinamización de la cultura de la sostenibilidad y el respeto medioambiental, sirviendo de herramienta para que la ciudadanía pueda pasar de la teoría a la acción. Uno de los ámbitos de actuación estratégica de KUTXA EKOGUNEA es la innovación en gestión sostenible del agua en el ámbito del parque Ekogunea y el desarrollo de acciones que fomenten una nueva cultura del agua.

**SEGUNDO**.- Que LA AGENCIA VASCA DEL AGUA, adscrita al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, tiene como misión llevar a cabo la política de agua en Euskadi.

**TERCERO**.- Que KUTXA EKOGUNEA presenta, a grandes rasgos, tres retos principales en relación al agua:

- Implantar en el parque Ekogunea sistemas de innovación tecnológica en los ámbitos de abastecimiento y saneamiento de aguas.
- Desarrollar programas de formación y educación ambiental, así como servicios de asesoría en torno a la gestión sostenible del agua.
- Impulsar campañas y proyectos en colaboración con las administraciones locales, así como otros agentes para fomentar una nueva cultura del agua.

**CUARTO.-** Que la AGENCIA VASCA DEL AGUA presenta a su vez los siguientes retos u objetivos principales, vinculados a los objetivos ambientales establecidos por el Departamento:

- EAEko ur-masen egoera ekologikoa hobetzea.
- Kantitate eta kalitate oneko hornidura unibertsala lortzea
- EAEko saneamendu-planak burutzea.
- Uraren administrazio eraginkorra.
- Uraren baliabidearen ikerketa eta aprobetxamendu iraunkorra.

Elkarrekin lan egiteko beharra, eta biek eduki dituzten lankidetza-arloak sustatu eta identifikatzeko eta elkarrekin ekintza-plana egiteko komenigarritasuna azpimarratu dituzte erakunde biek.

Adierazitakoarekin bat, parte-hartzaileek, elkarrekin ados, honako **LANKIDETZA HITZARMEN** hau gauzatu dute ondorengo klausulen arabera:

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA. HITZARMENAREN HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da Kutxa Ekoguneak eta Uraren Euskal Agentziak dagozkien eskumenen esparruan jarduteko hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea, ondorengo arloetan jarduketak elkarrekin burutzeko:

- Berrikuntza ur-horniduran eta saneamenduan
- Hezkuntza, prestakuntza eta aholkularitza
- Arroak lehengoratzea
- Uraren kultura berria sustatzea

[redacted]

- Mejora del estado ecológico de las masas de agua de la C.A.P.V.
- Obtención del abastecimiento universal en cantidad y calidad suficiente.
- Culminación de los Planes de saneamiento de la C.A.P.V.
- Administración eficaz del agua.
- Investigación y aprovechamiento sostenible del recurso del agua.

Ambas entidades subrayan la necesidad de trabajar en alianza y la conveniencia de impulsar e identificar áreas de colaboración mutua y elaborar un plan de acción conjuntamente.

En virtud de lo expuesto, las partes intervinientes, de común acuerdo, formalizan el presente **CONVENIO DE COLABORACIÓN** conforme a las siguientes:

## CLAUSULAS

### PRIMERA. OBJETO DEL CONVENIO

Es objeto del presente convenio regular las condiciones en las que Kutxa Ekogunea y la Agencia Vasca del Agua se comprometen a colaborar en el ámbito de sus competencias, en aras a la realización conjunta de actuaciones en los siguientes ámbitos:

- Innovación en abastecimiento y saneamiento de aguas
- Educación, formación y asesoramiento
- Restauración de cuencas
- Fomento de una nueva cultura

**BIGARRENA. HITZARMENAREN MEKANISMOA**

Lehenengo klausulan adierazitako arloak sustatzearren, Uraren Euskal Agentzia KUTXA EKOGUNEAREN Patronatuan “Laguntzaile” gisa sartzea eta esku hartzea erabaki dute erakunde biek.

Uraren Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluaren 2012ko uztailaren 5eko bileran eta Kutxa Ekogunearen patronatuaren 2012ko irailaren 27koan gauzatu zen txertatze hori.

**HIRUGARRENA. LANKIDETZA**

KUTXA EKOGUNEAREN eta URAREN EUSKAL AGENTZIAREN arteko lankidetzak erakunde-esparrutik haratago, hitzarmenaren xede diren jarduketak gauzatzeari ere ekingo dio. Horiek “**Jarduketa Programa**” barruan garatuko dira, eta hurrengo klausulan arautzen den Jarraipen Batzordeak agiri hori urtero onartu eta hitzarmen honi gehituko zaio, eta ekitaldi bakoitzeko jarduketen definizioa eta nondik norakoak jasoko ditu.

“Jarduketa Programak”, KUTXA EKOGUNEAK eta URAREN EUSKAL AGENTZIAK erabakitako jarduketa bakoitzaren inguruan dituzten konpromisoak eta horien balorazio ekonomikoa ezarriko ditu.

KUTXA EKOGUNEA eta URAREN EUSKAL AGENTZIAKO

[redacted]

del agua

**SEGUNDA. MECANISMO DEL CONVENIO**

Con objeto de impulsar los ámbitos señalados en la cláusula primera, ambas entidades acuerdan la incorporación y participación de la Agencia Vasca del Agua en el Patronato de KUTXA EKOGUNEA, en calidad de “Patrono colaborador”.

Dicha incorporación se formalizó en la reunión del Consejo de Administración de la Agencia Vasca del Agua de 5 de julio de 2012, y en la reunión del Patronato de Kutxa Ekogunea de 27 de septiembre de 2012.

**TERCERA. COLABORACIÓN**

La colaboración entre KUTXA EKOGUNEA y la AGENCIA VASCA DEL AGUA trascenderá el ámbito institucional para concretarse igualmente en la realización de las actuaciones objeto del convenio, desarrolladas en el marco del “**Programa de Actuaciones**” que como documento anexo a este convenio se elaborará y aprobará anualmente en la Comisión de Seguimiento, que se regula en la cláusula siguiente y que contendrá la definición y alcance de las actuaciones para cada ejercicio.

El “Programa de Actuaciones” establecerá los compromisos de KUTXA EKOGUNEA y la AGENCIA VASCA DEL AGUA en cada una de las acciones acordadas y su valoración económica.

El “Programa de Actuaciones” será suscrito anualmente por los Presidentes

lehendakariek/zuzendariek urtero sinatuko dute "Jarduketa Programa".

**LAUGARRENA. KONPROMISO EKONOMIKOAK**

URAREN EUSKAL AGENTZIAK urtero EHUN MILA EURO (100.000 €/urte) jartzeko konpromisoa hartu du, KUTXA EKOGUNEKO laguntzaile gisa esku hartzeko.

KUTXA EKOGUNEARI egindako ekarpena banku-transferentzia bidez egingo da, KUTXA EKOGUNEAREN titulartasuneko 2101 0982 72 0010515534 zk.ko kontura.

Halaber, alde sinatzaile bakoitzak, aurrekontuan erabilgarri duenaren arabera eta derrigorrezko administrazio-izapideak egin ondoren, hitzarmen honen finantzazioa hartuko du bere gain urteko "Jarduketa Programan" ezartzen den heinean.

**BOSGARRENA. JENDARTERATZEA ETA KOMUNIKAZIOA**

[redacted]

i. Erakunde bien irudi korporatiboak aurkezteko irizpideak ezarriko dira, erakunde bakoitzaren eskuliburu korporatiboaren arabera ezarritakoari jarraiki, eta helburua irudi biak harmonian azaltzea izango da.

ii. Aldeek erabaki beharko dute lankidetza-hitzarmen honen xede diren jarduketen inguruan jendarteratzen den informazioa eta, edozein kasutan, erantsitako urteko Jarduketa Programan

/ Directores de KUTXA EKOGUNEA y la AGENCIA VASCA DEL AGUA

**CUARTA. COMPROMISOS ECONÓMICOS**

La AGENCIA VASCA DEL AGUA se compromete a aportar CIEN MIL EUROS anuales (100.000 €/año) en virtud de su participación como patrono-colaborador de KUTXA EKOGUNEA.

La aportación a KUTXA EKOGUNEA se abonará mediante transferencia bancaria en el número de cuenta nº 2101 0982 72 0010515534 de titularidad de KUTXA EKOGUNEA, en el primer semestre del año corriente.

Adicionalmente, cada una de las partes firmantes asumirá, dentro de sus disponibilidades presupuestarias y previos los trámites administrativos que resulten preceptivos, la financiación de este convenio en la medida que se establezca en el "Programa de Actuaciones" anual.

**QUINTA. DIVULGACIÓN Y COMUNICACIÓN**

i. Se establecerán los criterios de presentación de las imágenes corporativas de ambas instituciones mediante un acuerdo establecido en función de los manuales corporativos de cada uno de ellos siendo el objetivo que ambas imágenes se presenten en armonía.

ii. La difusión y la información que se difunda públicamente en relación con las actuaciones objeto de este convenio de colaboración deberán ser acordadas entre las partes y, en

ezarritakoaren araberakoa izango da.

**SEIGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA**

Sinatzen den egunean sartuko da hitzarmen hau indarrean eta indarraldi mugagabea izango du, aldeek dagokion urteko "Jarduketa Programak" sinatzen duten bitartean.

Dena den, Lankidetza Hitzarmen hau bertan behera gelditruko da:

a) Bietako edozein aldek, urteroko urriaren 1a baino lehen idatziz egindako aurre-abisuaren bitartez jakinarazita. Kasu honetan, urte horretako abenduaren 31ra arte bete beharko dituzte aldeek dagozkien betebeharrak.

b) Bietako edozein aldek ondorengo kasuetan aurre-abisurik egin gabe jakinarazita:

- Bestea lehiaketan sartzen bada edo jarduteari uzten badio, zein Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 60.1. artikuluan eta gaiaren inguruan indarrean dauden gainerako xedapenetan sektore publikoarekin kontratatzeko ezarritako debeku-arrazoiren bat izatekotan.

- Pertsona laguntzailearen izaera galtzekotan.

[redacted]

**ZAZPIGARRENA. JAKINARAZPENAK**

Hitzarmen honen behar bezalako gauzatzeari dagozkien zirkunstantzia

todo caso, se ajustarán a lo establecido en el Programa de Actuaciones anual anexo.

**SEXTA. VIGENCIA DEL CONVENIO**

El presente acuerdo entrará en vigor el día de su firma y mantendrá su vigencia de forma indefinida, en tanto se suscriban por las partes los correspondientes "Programas de Actuaciones" anuales.

No obstante, el presente Convenio de Colaboración quedará extinguido:

a) Por denuncia unilateral de cualquiera de las partes, mediante preaviso por escrito realizado con anterioridad al día 1 de octubre de cada año. En este supuesto, las partes estarán obligadas a cumplir sus obligaciones hasta el 31 de diciembre del año en curso.

b) Por denuncia de una de las partes sin necesidad de preaviso:

- En caso de que la otra incurra en situación de concurso o cese en su actividad, así como en alguna de las causas de prohibición de contratar con el sector público establecidas en el artículo 60.1 del Real Decreto 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de Contratos del Sector Público y demás disposiciones vigentes sobre la materia.

- En caso de pérdida de la condición de persona colaboradora.

**SEPTIMA. NOTIFICACIONES**

Las partes se comprometen a comunicarse mutuamente cuantas

guztiak elkarri jakinarazteko konpromisoa hartu dute Aldeek.

Hitzarmen honen inguruko edozein jakinarazpenerako, ondorengoak izango dira arduradunak:

| KUTXA EKOGUNERAKO: | URA AGENTZIARAKO: |
|---|---|
| Mikel Insausti jn.<br>Oriamendi pasealekua, 170,<br>20009 Donostia<br>E-posta:<br>mikel@ekogunea.net | Iñaki Urrizalki jn.<br>Orio kalea, 1-3<br>01010 Vitoria-Gasteiz<br>E-posta:<br>iurrizalki@uragentzia.net |
| Kopia honako honi bidalita: Anabel Lazkanori | Kopia honako honi bidalita: Enrique Urrutiari |

Baldintza horietan eta adierazitako guztia jasota gera dadin, HITZARMEN honen bi ale sinatu dira, ondorio bakar batekin, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

circunstancias afecten a la correcta ejecución de este Convenio.

A efectos de cualquier notificación sobre el presente Convenio, las personas responsables serán:

| Para KUTXA EKOGUNEA: | Para: URA AGENTZIA |
|---|---|
| D. Mikel Insausti<br>Paseo de Oriamendi no 170,<br>San Sebastián<br>CP 20009<br>E-mail:<br>mikel@ekogunea.net | D. Iñaki Urrizalki<br>Orio kalea, 1-3<br>01010 Vitoria-Gasteiz<br>E-posta:<br>iurrizalki@uragentzia.net |
| Con copia a:<br>Anabel Lazkano | Con copia a:<br>Enrique Urrutia |

En estas condiciones y para la debida constancia de todo lo contenido, se firma este CONVENIO por duplicado y a un sólo efecto en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

[redacted]

KUTXA EKOGUNEKO
LEHENDAKARIA

Fdo.:Carlos Ruiz González

[redacted]

URAREN EUSKAL AGENTZIAKO
ZUZENDARI NAGUSIA

Fdo.:Iñaki Urrizalqui Oroz

[redacted]